

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jardueren artean, garrantzitsuena gure **hartaileak eta inguruko biztanleria** ondo ezagutzea izango da; beraiek eta, jakina, abandonatutako animaliak izango baitira gure proiektuaren existentziaren arrazoia.

Egingo ditugun jarduerak prestatu aurretik, aurrelanketa bat egitea beharrezkoa dela uste dugu. Lehendabizi, gure elkarteak jardun nahi duen herrien azterketa egingo dugu: abandonatutako animalien egoera, jabeen beharrak, herritarren sentsibilizazio maila eta erabili ahal izango ditugun espazioak (txakur-parkeak, mendi bideak, lokalak...) ezagutzeko.

Beraz, herri bakoitzean errealitate desberdinak dauden heinean, gure ekintzak ere **beharrizan horietara moldatuko ditugu**. Behin azterketa eginda, espazioak, sentsibilizazio ekintzak, aisialdi inklusiboa, tailerrak eta formakuntzak eskainiko ditugu. Gure lana sormenezkoa izatea nahi dugu, animalien eta pertsonen arteko lotura osasuntsua sustatzeko.

Gure jarduera guztiak **familia osoarentzako** pentsatutakoak dira. Natura eta animaliekiko errespetua oso presente egongo dira, eta elkarlana izango da gure ikurra. Argi dugu gure jarduera guztiek **asmo hezigarria** izan behar dutela: ez dugu animalia bat "erakutsi" nahi, beraiekiko enpatia eta ardura landu nahi dugu.

Hauek izango dira hasiera batean proposatuko ditugun jardueretako batzuk:

- **Sormen tailerrak:** Animalientzako jostailu birziklatuak egitea, etxeak eraikitzea...
- **Gastronomia tailerrak:** Txakur eta katuentzako sari eta galleta osasuntsuak prestatzen ikastea.
- **Ipuin kontaketak:** Animalien eskubideen eta enpatiaren inguruko istorioak.
- **Adopzio guneak:** Animaliak ezagutzeko eta harremanak sortzeko gune seguruak.
- **Irteerak:** "Ibilaldi kontzienteak" mendira edo basora gure txakurrekin.
- **Tertuliak:** Animalien doluaz, portaeraz edo bizikidetzaz hitz egiteko.
- **Ikastaroak eta hitzaldiak:** Heziketa positiboa, lehen laguntzak animalientzat, lege berriak...

GOIZ EDO ARRATSALDE BAT GUREKIN

Ondoren, BABESBIZIn saio bat nolakoa izan daitekeen deskribatuko dugu bi bidez:

● SUKALDARITZA ETA OSASUNA

- **Hitzaldia:** Hasteko, animalien elikadura osasuntsuaren inguruko hitzaldi labur bat emango genuke (adibidez, nutrizionista karratuekin), janari industrialaren eta naturalaren arteko aldeak azalduz.



- **Praktika:** Ondoren, elikagai natural desberdinak banatuko ditugu eta taldeka jarriko gara. Talde bakoitzak txakur/katuentzako errezeta osasuntsu bat prestatu eta praktikan jarriko du.
- **Dastaketa eta esperientziak:** Amaitzerakoan, prestatutakoa gure babespeko animaliei emango diegu (ahal bada). Tarte honetan, familiek animaliekin etxean dituzten bizipenak eta kezak elkartrukatu dituzte.

● ELKARREKIN BASOAN

Euskal Herriko basoak ingurune bikainak dira animalien eta pertsonen arteko lotura sendotzeko. Basoan egun bat planifikatzea etengabe aldatzen delako berriak...).

erronka bat da, natura (euria, lokatza, usain



- **Konexioa:** Basora goazenean, "animalia bezala" sentitzea izango da helburua: usaimena landu, ingurua entzun eta animaliak nola komunikatzen diren behatu.

- **Eguraldiari aurre egin:** Euriarekin gozatzen ikasiko dugu; putzuetan salto egitea edo usain freskoak identifikatzea momentu ahaztezina izan daiteke taldearentzat eta txakurrentzat.

Amaitzeko, **etengabeko formakuntzan** aritzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Gure neska taldeak animalien eta familien bidelagun izan nahi du. Guztion artean proiektu hau aurrera ateratzea, animalien bizitza hobetzea eta gizarte enpatikoago bat sortzea da gure xede nagusia.